

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **2/2020 Mozioa, urtarrilaren 15ekoa, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiari eskatzen baitzaio Arabarren proiektua bultzatzen jarrai dezala**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko urtarrilaren 15ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

2/2020 Mozioa, urtarrilaren 15ekoa, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiari eskatzen baitzaio Arabarren proiektua bultzatzen jarrai dezala.

Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Arabarren proiektua bultzatzen jarrai dezala, erakundearen eta gizarte-ekimeneko kooperatiba baten arteko lan-kidetza-eredu moduan, mendekotasuna duten adinekoentzako eta desgaitasun larria duten pertsonentzako egoitza-plazen beharrei erantzuna emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 15a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**